

URDAIBAICO
IBAI SAREA

ikurrak

- | | | | |
|--|---------------------|--|-------------------------|
| | Abiapuntua | | Atsedengunea |
| | Helmuga | | Iturria |
| | Garraio publiko | | Gotorlekua |
| | Turismo bulegoa | | Eliza |
| | Aparkalekua | | Ermita |
| | Taberna | | Dorretxea |
| | Natura2000sarea | | Naturgune interesgarria |
| | Gailurra | | Jolaslekua |
| | Ikuspegi panoramiko | | |

Gernika-Lumoko bazter guztiak ibili ditugula dirudi. Baso naturalenak, baserri ederrenak, bide zaharrenak, bazter magikoenak... ezagutu ditugu eta errekararen soinuekin, loreen usainekin, txorien kantuekin eta, zergatik ez, txakurren zaunekin gozatzeko aukera izan dugu.


Ederrak izan dira hamaikatxo bidetan zehar azken 10 urtetik gora egin ditugun txangoak. Baina, txango hau Berbalagunkideentzat berezia da oso. Izan ere, Ganaga tontorra izango dugu helburu, "Berbalaguneko plakatxoa gorderik duen tontor txikia bezain ederra".

Tontor horretara igotzeko Lumoko Zallo auzoa zeharkatuko dugu lehenik. Lurgorriko Santa Luzia ermita albotik igaro ostean, erreka ertzetik, auzo bidean zehar, Arribaltzara igoko gara. Hemendik, kontu handiz, errepidea zeharkatu ostean Amillagarantz jarraituko dugu, astiro-astiro, aldapan gora. San Martin ermita, bere iturriarekin, atsedean hartzeko leku ederra da.

Ermitan gora jarraituko dugu gasaren bidetik artez, Lumo eta Errigoiti arteko errepidera heldu arte. Han ezkererantz joko dugu, Elorrieta baserriko bidegurutzera heltzeko. Pistan 50 m aurrerago, eskumako partean bidezidor bat abiatzen da, aldapan gora, Ganagako tontorrera heltzeko. Aspaldi erakutsi zigun Txikik tontor honen edertasuna. Gutariko askok, Gernika-Lumoko tontorra izan arren, ez genuen ezagutzen. Kosnoaga tontorraren albo batean lotsati ageri da Ganaga. Eta agian horregatik aukeratu dugu Berbalagunkideon tontor. Ganagara bueltatuko gara...nahi dugun guztietan.

Ganagatik Kosnoagara joko dugu. Tontorra inguratu eta ikuspegiaren edertasunaz gozatu ostean, Lumora jaitsiko gara, Monasterion behera, landa eta basotxoak zeharkatuz. Lumoko errepidean behera egingo dugu baina ardi eta ahuntzak dauden landa albotik igaro ostean, eskumatik abiatzen den eta Zigertatxu baserriraino jaisten den herri-bidetik jarraituko dugu. Zigertatxutik behera udaletxeko plazara helduko gara.

FITXA TEKNIKOAK



berbalagun bertsoan

GANAGAKO TONTORRETIK ESKER BERTSOAK

zuri pili

Ez zenuen espero baina horrela da gaur sorpresa batekin gatoz zuregana. Laster jubilatuta alpertuko zara, eskerrik asko Pili mundiala izan da.

zuri txiki

10 urtetik gora hamaikatxo bazter ezagutu, gozatu ditugu zuri esker. Ganaga tontorretik diotsugu ozen, gidari onik bada hori dugu hemen.

eta zuei ere

Gidari onak beti behar du taldea eta guk izan dugu benetan suertea. Laguntzeko prest beti bata zein bestea, eskerrik asko ekipo izan da ohorea.

ARDOARI BERTSOAK. TOPA!

- 1 Bagila heldu da ta ardo dastaketa; kontu merke ugari eta berriketa. Pasatu barik pasa gaurko ariketa, hau ez da Azketaren gaseosa eta.
- 2 Urteroko zitara gaur be Ramon Bilbao, esan orduko Baste prestatu da ri-rau. Bai, bai eskerrik asko pozik entzungo dau, baina askoz pozago: hau bai ardo hau!!!
- 3 Baltza bizigarria, zuria freskoa, mahatsaren ur ezta eta legezkoa, mendi martxa ostean hain beharrezkoa. Egarrri geratzea ez da bidezkoa
- 4 Logurak uxatzeko goizeko garoa, BERBALAGUNek bero jartzen dau giroa. Baina, baina sarritan, hau egi sanoa: berbea baino lagun hobe ardo
- 5 Hartu kopak eskuan, gora eta behera; ezkerrean, eskuma, aurrera, atzera; gero klink egin eta aho barrenera, usaia ta gustua dastatuz batera.
- 6 Gidari hobezinak hona eta hara; ibilbide politak, ahoan euskara. Agur, gozatu ardo zaharraren zirrarra. Datorren irailean elkartuko gara.



moiseen bertsoak